



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERAKUNDE AUTONOMO, ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKO ETA SOZIJETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2005.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Administrazioaren 2005eko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, zeinak Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoak eta EA Eren partaidetza % 50ekoa baino handiagoa duten Sozietate Publikoak besarkatzen baititu. Txostena HKEEren osoko kideen gehiengoak onetsi du.

Lanaren mamia izan da Osakidetza Erakundeak diru publikoen kudeaketan indarreko legedia zein mailatan bete duen egiaztatzeko azterketa mugatua egitea eta inbertsioak, ondasunak eta zerbitzuak eta langileria kontratatzean legezketasuna bete izanaren azterketa mugatua egitea enpresa erakunde publiko batean eta 10 enpresatan:

- Energiaren Euskal Energia (EEE)
- EJIIE- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak, SA
- Euskadiko Kirol Portua, S.A.
- Euskal Telegista, S.A.
- Eusko Trenbideak, S.A.
- Eusko Trenbide Sarea
- Mendikoi-Nekazaritza Garapenerako Institutua, S.A.
- NEIKER-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua, SA
- Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea, SA (SPRI, S.A.)
- SPRILUR, S.A.
- BEC Orubea, AIE

Epaitegiak txosteneko ondorioen atalean inbertsioak egin eta ondasun eta zerbitzuen erosketen espedienteetan batetik, eta langileen kontratazioen espedienteak aztertzean, bestetik, azaleratu diren akats nagusiak azaleratu ditu.

Sozietate publikoen eta enpresa erakundearen kasuan, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeak agintzen dituen eskakizunak betetzeari dagokionez azaleratu diren hutsak ia gehien bat publizitate ezari dagozkio. Osakidetza Erakundearen azterketan



jaso dira, berebat, Osakidetzaren artekaritza zerbitzuak jaulkitako txostenen ondorio nagusiak eta hemen kasuistika zabalagoa da, izan ere, Erakundeak legezketasuna betetzeko betekizun handiagoak baititu; honela, bada, zatikapen kasuak azaleratu zaizkigu, erabilitako prozeduren justifikazio eza edo esleipenean erabilitako baloraketa irizpideen eta Pleguetan jasotakoen artean izandako aldeak, besteak beste.

Sozietate publikoek gauzatutako langileen kontratazioa aztertzean adierazi da, hautaketa prozesuetako batzuk ez direla indarreko legeriak nahitaezkozat finkatzen duen publikitatea betez izapidetu. ETB, SARI dagokionez, aurreko txostenetan azaleratutako akats berak dirau, izendapen aske bitartez betetako 54 lanposturen berri Administrazio Kontseiluari ez emateari buruzkoa.

Osakidetzari dagokionez, langileen alorrari dagozkion akatsak honako hauek dira: langileen sailkapen funtzional eza, zuzendariordeen izendapena eta zerbitzu betekizunak ematea, publikitate printzipioak gorde gabe.